

**2017ko APIRILAREN 6an UDALBATZARRAK EGINDAKO OHIKO OSOKO  
BILKURAREN AKTA (2017ko martxoaren 30eko bilkuraren jarraipena) 3-2 zk.**

EGINBIDEA.- Jasoarazteko 2017ko martxoaren 30ean egindako ohiko osoko bilkura gaueko 24:00etan bukatu zela, Errregelamendu Organikoak 63. artikuluan xedatutakoa betetzeko. Izan ere, artikulua horretan ezartzen baita bilkura guztiak hasitako egun berean bukatu beharko direla.

Beraz, horretarako beste deialdia egin eta gero, Udalbatzarrak bilkura jarraitu du, ohiko izaeraz, 2017ko apirilaren 6an.

Zarautzen, 2017ko apirilaren 6a  
Idazkaria

Zarauzko udaletxeko batzar-aretoan, 2017ko apirilaren 6an, iluntzeko zazpitan, Udalbatzarra bildu da, 2017ko martxoaren 30erako deituta zegoen eta egun hartako gaueko 24:00etan bukatu zen bilkura jarraitzeko xedez.

Honako zinegotzi hauek bertaratu dira:

<b>Batzarburua</b>	Xabier Txurruka Fernandez jn.
<b>Bertaratutako zinegotziak</b>	Maite Garrastazu and. Jesus Arana Gomez jn. Nekane Iribar Iriondo and. Iban San Martin Hernandez jn. Jon Andoni Urdangarin Urrutia jn. Iratxe Zorrozuza Eguiazabal and. Koldo Uribarri Zenekorta jn. Mikel Goenaga Gubia jn. Naiara Carvajal Larrañaga and. Iñaki Eizagirre Eizagirre jn. Karmele Alberdi Linazasoro and. Aitor Korta Etxabe jn. Xabier Vazquez Izquierdo jn. Ane Arruti Lopetegi and. Gloria Vazquez Herranz and. Patxi Elola Azpeitia jn. Ana De Benito Sanz and. Oihane Delgado Pita and.

**Ez dira etorri**

Ixidor Larrañaga Ayerbe jn.  
Miren Letamendia Beloso and.

**Idazkaria**

Ines Diaz de Villafranca Arzamendi and.

Bilkurari hasiera emanda, eguneko aztergaiak aztertu eta eztabaidatu ditu Udalbatzarrak.

## GAI-ZERRENDIA

### 1.- PSE-EE UDAL TALDEAK AURKEZTUTAKO PROPOSAMENA:

– Erasoak jasan dituzten pertsonen, alderdiei eta erakundeei elkartasuna adierazteko Mozioa

2017 O 001 0014 espedientea

Nolanahi ere, martxoaren 30eko osoko bilkuran jada mozioa irakurri zutenez eta udal taldeek hitz egiteko lehenbiziko txanda amaitu zutenez, gaueko hamabiak jo zutenean zeuden puntuan heldu diote berriz eztabaidari.

IRABAZI ZARAUTZ udal taldeak eskatuta, mozioaren aurkezle PSE-EE taldeak puntuz puntu bozkatzea onartu du.

Horrela bada, eztabaida amaitu eta batzarburuak horrela aginduta, mozioaren puntuak banan-banan bozkatu dituzte. Hauxe izan da emaitza:

#### 1. PUNTUA

Aldeko botoak:	11	(8 EAJ-PNV, 2 PSE-EE, 1 Irabazi Zarautz)
Kontrako botoak:	8	(7 EH Bildu, 1 Irabazi Zarautz)
Abstentzioak:	–	

#### 2. PUNTUA

Aldeko botoak:	11	(8 EAJ-PNV, 2 PSE-EE, 1 Irabazi Zarautz)
Kontrako botoak:	8	(7 EH Bildu, 1 Irabazi Zarautz)
Abstentzioak:	–	

#### 3. PUNTUA

Aldeko botoak:	10	(8 EAJ-PNV, 2 PSE-EE)
Kontrako botoak:	8	(7 EH Bildu, 1 Irabazi Zarautz)
Abstentzioak:	1	(1 Irabazi Zarautz)

Ondorioz, bozketa bakoitzean jasotako emaitzarekin, mozioaren hiru puntuak onartzea ERABAKI DU Udalbatzarrak.

## **2.- ESKARI-GALDERAK**

Gai-zerrendako puntu honetan gai hauek izan dituzte hizpide:

- Etsxegabetzei buruzko adierazpen instituzionala betetzea.
- Astiko jolasgunean eta bertan eraikitzekoa den jatetxe-taberna.
- Eskola Kirolaren Eguna, kirol plana eta Kirol Mahaia eratzea.
- Adierazpen instituzionalak alkate jaunak irakurtzea.
- Udaletxean maiatzaren 7ko herri galdeketaren aldeko kartelak jartzea.

Eta aztertzeko besterik ezean, batzarburu jaunak hala aginduta, osoko bilkurari amaiera eman diote, iluntzeko zortziak hogeit gutxitan, eta nik, idazkariak, horren guztiaren fede ematen dut.